

# JESUS ETA PEDRO

1

Santua ez da santu jaioten,  
hori nekez eta lorrez,  
Jainkoak Berak salbatzen gaitu  
maitasun errukiorrez.  
Pedro ere makala,  
ez eban uste hala...  
ta jaiotakorik nor ez?  
Ahalegin danak eginda ere  
Jaunaren aurrean zorrez.

3

Jesus lurrean otoitzean ta  
gure Pedro dago lotan,  
sare ederra jarriko deutse,  
jausi baietz oraingotan:  
“Ez al haiz horren lagun?  
Berbetan dok ezagun,  
neuk ikusi haut askotan”.  
Eta lotatik itzartuteko  
joten dau oilarrak kotan.

5

Halako baten agertzen jake  
Jesus euren batzarrean,  
eta Pedrori bere izenez  
deitu eutson bakarrean:  
“Horreek baino gehiago  
al nozu maiteago?”  
Pedrok triste samarrean:  
“Zuk badakizu, nik maite zaitut  
neure bihotz kaxkarrean”.

2

Gure San Pedro Jesus Jaunari  
gorputz t'arimaz emona,  
ezertxogaitik ere ez eban  
ukatuko Maixu ona.  
“Gogoa dago bizkor,  
haragia da jauskor”  
Jesusek esan eutsona.  
Bere asmo on zintzo ta guzti,  
San Pedro ere gizona.

4

Bereak ta bost jasan ondoren  
Jesus gurutzean hila,  
hori jakinda ez dauka Pedrok  
bere barrua trunkila.  
“Jesus berbiztu dala”  
han-hemen bala-bala,  
bera ere joan da bila.  
Jesus bizirik noiz ikusiko  
arduraz dabil mutila.

6

Eskerrik asko, Aita San Pedro,  
zu zaitugu maixu ona:  
gogoz zintzo ta haragiz makal,  
besterik zer da gizona?  
“Pedro, zara Harria  
Neuk ordezeko jarria,  
jakizu zeugaz nagona”.  
Zorioneko gizona, Jaunak  
dana parkatu deutsona.